



KOSTUEN EGITURA

Aplikazioa garatzen hasi aurretik eta enpresari hasiera bat eman aurretik, edukiko ditugun gastuak definitu behar ditugu, honela eskatu beharreko maileguaren kopurua jakiteko. Gure kostuak bi ataletan desberdindu ditugu: hasieran aplikazioa garatzen ari gareneko (6 hilabetez) kostuak eta diru sarrerak, eta aplikazioa kaleratzean edukiko ditugun diru sarrerak eta kostuak. Kostuak bi ataletan desberdindu behar dira: alde batetik kostu finkoak, hau da, ez direnak aldatuko, eta bestetik kostu aldakorak, gure kasuan bezero kopuruaren arabera aldatuko direnak.

APLIKAZIOA GARATZEN (6 hilabetez)				
DIRU SARRERAK		KOSTUAK		
Publizitatea	(hasieran ezer ez)	FINKOAK	Soldatak	2.000€ hilabetero, 10 langile
			Alokairua	1.000€ hilabetero
Diru Laguntza	100.000€		Mailegua	550€ hilabetero
		Argindarra	500€ hilabetero	
Mailegua	60.000€	ALDAKORRAK	Materiala	10 ordenagailu → 5.000€
			Zebitzariak	10.000€
			Aplikazioaren publizitatea egitea	10.000€
TOTALA:	160.000€	TOTALA:		157.300€

Aplikazioa garatzen ari garenean, irabazi iturrietan identifikatu genuen bezala, diru sarrerak diru laguntzarenak eta maileguarenak bakarrik izango dira, ezingo baitugu gure aplikazioan publizitaterik jarri diru sarrerak lortzeko, baina kostuak askotarikoak izango dira. Kostu finkoei dagokienez, 10 langile



edukiko ditugu, eta bakoitzari 2.000€ ordainduko dizkiogu hilabetero, eta bulegoen alokairua 1.000€koa izango da hilabetero. Horiek ez dira aldatuko lehen sei hilabeteetan, gure diru sarrerak ez baitira aldatuko, eta soldatak ez ditugu aldatuko. Aldakorrei dagokienez, argindarra 500€ izango da hilabetero, eta aldatzeko aukera dago, haren prezioa asko aldatzen baita. Materiala bereziki 10 ordenagailu erostea izango da, bakoitza 500€koa, eta 10.000€ko zerbitzariak erosiko ditugu gure aplikazioa eskaini ahal izateko. Azkenik, aplikazioaren publizitatea egiteko 10.000€ inbertituko ditugu, garrantzitsua izango baita erabiltzaileak erakartzea, horren arabera enpresak hobera egingo duelako.



APLIKAZIOA KALERATUTA				
DIRU SARRERAK		KOSTUAK		
Publizitatea %90	75.000€	FINKOAK	Soldatak	2.000€ hilabetero, 10 langile
			Alokairua	1.000€ hilabetero
Mailegua	550€ hilabetero			
Mapen Salmentak %10	30.000€	ALDAKORRA K	Argindarra	1.000€ hilabetero
			Bestelakoak	1.000€
			Zebitzariak (mantendu)	500€ hilabetero
TOTALA:	105.000€	TOTALA:		24.050€/ hilabetero



Behin aplikazioa kaleratuta dugula, bai kostu eta bai diru sarrera gehienak aldakorrak izango dira, aplikazioaren errendimenduaren arabera izango baitira. Publizitatea izango da gure diru sarreren %90a, eta hasieran 75.000€ irabaziko ez ditugun arren (erabiltzaile gutxi egongo direlako hasieran), aplikazioak hobera egin ahala handituz joango da publizitateak emango digun dirua. Bestetik, %10a mapen salmenta izango da, hau da, jendeak igotzen dituen mapak GPS eta enpresa desberdinei saltzea. Salmenta horrek hasieran ez digu diru asko emango, ez direlako mapa asko egongo aplikazioan, baina mapa kopurua handitu ahala, horien salmentak emango digun dirua handituz joango da.

Kostuei dagokienez, finkoak eta aldakorrak egongo dira. Soldatak adibidez, hasieran 2.000€ izango dira hilabetero, baina aplikazioaren errendimenduaren eta diru sarreren arabera igo edo jaitsi egingo dira soldatak. Alokairua ere soldaten antzekoa izango da, hau da, hasiera batean 1.000€ izango da hilabetero, baina langile eta bulego kopurua handituko badugu, alokairuaren prezioa handituko da. Maileguan 66.000€ itzuli beharko ditugu, beraz, hilabetero 550€ ordainduko ditugu 10 urtez.



Aldakorren kasuan hiru atal egongo dira: argindarra, zerbitzariak mantentzea eta bestelakoak. Argindarra hasiera batean 1.000€koa izango da hilabetero, baina prezio aldatuz doa, zerbitzariak mantentzeak 500€ kostatuko du hilabetero eta bestelako gastuak 1.000€ hilabetero. Bestelako gastuetan materialen gastuak izango dira batez ere, hau da, ordenagailuak konpondu behar izatea, impresorak erostea, etab.

Honela, behin enpresak edukiko dituen gastuak bi ataletan banatu ditugula, aurreikusi dugu irabazi iturriak kostuak baina handiagoak izango direla, beraz, enpresari hasiera bat emateko gai izango ginateke. Alde batetik aplikazioa garatzen ari garen bitartean edukiko ditugun gastuak edukiko ditugu, eta bestetik aplikazioa kaleratuta dagoenean edukiko ditugun gastuak. Gure kasuan gehiena aldakorra izango da, eta gastuak aplikazioaren errendimenduaren arabera izango dira: hobera egiten badu, diru sarrera gehiago edukiko ditugu, eta soldatak handituz eta material kopurua handituz joango gara, eta okerrera egiten badu soldatak eta materiala jaitsi beharko ditugu.